

IZARO ELORZA ARREGUIK, Oñatiko Alkatea naizenez eta legeek ematen dizkidaten ahalmenen arabera, ondorengo agintzea erabaki dut:

BANDOA

UDALAREN BASOETATIK ATERATAKO SU-EGURRA ZOZKETA BIDEZ EMATEA

1.- Esleipena egiten duen erakundea

- a. Erakundea: Oñatiko Udala
- b. Espedientearen arduraduna: Ingurumen saila

2.- Gaia

Etixerako su-egurra banatzea.

3.- Aurrekariak

Udalaren lursail patrimonialen inbentarioa eguneratzeko eta era horretan kudeaketarako aukerak aztertze helburuarekin, 2021eko maiatzean Errez enpresa kontratu zuen Oñatiko Udalak. Lanaren ondorio bezala partzela bakoitzaren egoera legala eta naturala, mugarren posizioa eta kudeaketarako aukerak zehazten duen oinarri digitala eta fisikoa jasotzen duen dokumentua idatzi zen.

Gipuzkoako Mendien 7/2006 Foru Arauak basoen kudeaketa iraunkorrerako printzipio orokorretara egokitzeko helburuarekin, 2022ko urriaren 7ko Alkate Dekretu bidez, Udal ondareko basoetan kudeaketa iraunkorrerako plan teknikoa BKIPT idazteko lana kontratatu zen.

2023ko maiatzaren 16an Ingurumen Batzordeak egindako bileran Udal ondareko basoetan kudeaketa iraunkorrerako plan teknikoa BKIPT aurkeztu zen. Aipatu planak 20 urteetarako indarraldia du. Delako plana Udalaren web orrialdean dago ikusgai (<https://www.oñati.eus/eu/udala/planak>)

2024ko ekainaren 12an Ingurumen Batzordeak egindako bileran, besteak beste, Udal ondareko basoetan kudeaketa iraunkorrerako plan teknikoak BKIPT jasotzen dituen ekintzak gauzatze aldera, kudeaketa planean aurreikusitako seinalamendu lanak egiteko aurrekontua onartu zen.

Egindako seinalamendu lanak gauzatzeko zerbitzua Jon Etxarri Mendizabal jaunarekin kontratatu zen 2025eko maiatzaren 15eko Udal Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiz.

Udalaren lursail patrimonialak diren ondorengo basoetan egindako bakanketa lanen ondorioz ateratako egurra da banatuko dena: Aldai-Luzeko-Egisa, Lopiaso eta Torretxebarriondo deritzen lursailak (03-151 partzela) eta Jaumendi deritzon lursaila (10-214 partzela)

4.- Egurraren ezaugarriak

Lopiasoro inguko basoan, 1985 urte inguruan landatatutako haritz amerikarra da nagusi (bertako haritz banaka batzuk ere badaude). 20-30 m bitarteko garaiera dute.

Jaumendi edo Antxia deritzon basoan ere, 1985 urte inguruan landatatutako haritz amerikarra da nagusi (bertako haritz banaka batzuk ere badaude). 20-30 m bitarteko garaiera dute.

Bakanketa lanetatik atera den egurra, moztu gabeko enborretan banatuko da, 2,4-5,0 metrotako luzeran inguruan.

5.- Su-egurraren prezioa

6 Tn egurrez kargatutako biaje bakoitzeko: 500 € BEZ barne, baserrian bertan utzita.

6.- Tramitazioa, jardunbidea eta esleipen modua

a. Tramitazioa: Arrunta.

b. Prozedura: jasotako eskaeren artean zozketa bidez esleituko dira su-egurretarako kamioak, dagoen su-egurra bukatu arte. Baserri bakoitzak kamioi bakarra jaso ahal izango du, nolanahi, su-egurra sobratuko balitz kamioi bat baino gehiago eramatea posible izango da.

c. Era: Zozketa.

7.- Behin-behineko bermea

Zozketan aukeratua izanez gero, su-egurra jaso ahal izateko, aldeztu aurretik honako kontu korrontean su-egurraren prezioa ingresatu beharko da.

Diru-sarreraren kontzeptuan, izen-abizenak eta "su-egurra" jarri beharko da.

KUTXABANK: 2095.5057.43.1060024766

LABORAL: 3035.0005.36.0050900035

8.- Behin-betiko bermea

Ez da eskatzen

9.- Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea

Erregistro Orokorren bidez aurkeztu behar da, bai Foruen Enparantza 1. zenbakian, bai egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?ayto=059>.

10.-Esleipendunak bete beharreko baldintza bereziak

Etixerako egurraren aprobetxamenduen onuradun izateko, eskatzaileak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a. Oñatiko udalerrian erroldatuta egotea.
- b. Norberaren edo etxeko kontsumorako izatea, ezin izango da su-egurra saldu.
- c. Su-egurra deskargatzeko nahiko leku prest izatea.
- d. Karga-deskarga lanetarako, garraioa egin baino lehen, Oñatiko Udalak ezarriko dituen baldintzak bermatzea.

Baserriko edo familia-unitateko su-egur lote bakarra eskatu ahalko da. Egur loteak zuzenean erabili beharko dira eta onuradunak ezingo ditu saldu.

11.-Egurra banatzeko prozedura

Oñatiko Udalak egurzale bat kontratatuko du su-egurra baserri inguruan egokitutako tokira eraman eta bertan uzteko.

Baserri inguruan egokitzen den deskarga tokiak, nahiko espazio izan beharko du egurra jasotzeko eta bertara kamioia iristeko baldintzak bete beharko ditu.

Egurra banatu aurretik, egurzalea eskatzailearekin telefonoz harremanetan jarriko da, gutxinez 24 orduko aurrerapenarekin.

Eskatzaileek, eskaera egitearekin batera onartzen dute bere telefono zenbakia egurzalearekin partekatzeko aukera.

12.- Eskaintzen edo parte hartzeko eskabideen aurkezpena

- a. Aurkeztu azken eguna: uztailaren 28a.
- b. Aurkeztu beharreko dokumentazioa: eskaera orria.
- c. Aurkezteko lekua:
 - Erakundea: Oñatiko Udaleko Erregistro Orokorra
 - Helbidea: Foruen Enparantza 1
 - Herria eta posta-kodea: Oñati 20560

13.- Eskaeren zozketa

- a. Erakundea: Oñatiko Udala
- b. Helbidea: Foruen Enparantza 1.
- c. Herria: Oñati.
- d. Eguna: uztailaren 29an, goizeko 10etan Udal Osoko Bilkura aretoan.

Horrela agindu eta jakinarazten dut . Oñatin, sinadura digitalean ageri den datan.

Alkateak

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

su-egurra zozketa bidez banatzeko bandoa